

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

KONTSUMOBIDE

1. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak defendatzeko, toki-erakundeei eta toki-erakunde horiek sustatutako erakundeei zuzendutako diru-laguntzen programa.

1.- Izenburua

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak defendatzeko, toki-erakundeei eta toki-erakunde horiek sustatutako erakundeei zuzendutako diru-laguntzen programa.

2.- Araua

2010eko otsailaren 17ko AGINDUA, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena (EHAren 37 zk., 2010-02-24koa).

2013ko abenduaren 3ko EBAZPENA, Kontsumobideren zuzendariarena (EHAren 237 zk., 2012-12-13koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzen helburua da kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoetarako honako gastu hauek ordaintzea: instalazioak, erreformak, zabaltze-lanak edo ekipamenduak gauzatzeko gastuak; zentro eta zerbitzuak lekuz aldatzeko gastuak; funtzionamendu-gastuak; bertako prestakuntza eta dibulgazio jardueren gastuak, eta kontsumo-ikuskapenerako jardueren gastuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an, 35 erakunderi eman zaie laguntza kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko. Horri esker, kontsumitzaileek egindako erreklamazioei eta kontsultei erantzun diete bulego horiek, eta informazio eta prestakuntza jarduerak antolatu ahal izan dira.

Gainera, laguntza eman zaie zazpi erakunderi kontsumo-ikuskapenerako jarduerak egiteko, eta, horren ondorioz, kontsumitzaileen esku merkatuan jartzen diren salgaien segurtasun-kontrola areagotu egin da.

Bestalde, laguntza eman zaie lau erakunderi bulegoetako ekipamendua eta instalazioak hobetzeko.